



«Paperak planoak uzten duen une hori gustatzen zait»

Susana Blascorekin solasean



Itsaso Larramendi Elexgaray
Arkitektoa

Bidaltze data: 2020-09-20
Onartze data: 2020-09-27

Susana Blascok diseinatzaile grafiko, ilustratzaile, collagista, bizar-xafla zorrotzaile, zaragozar, londrestar eta bilbotar bezala deskribatzen du bere burua. Martxoko etxe-konfinamenduan zehar egindako lana abiapuntutzat hartuta argazki zaharrez, hormez eta izanaz ibili gara hizketan.

Aldiri: Konfinamenduan egindako paperezko etxetxo batzuk, bat etxean igarotako egun bakoitzeko. Zer bilatzen zenuen telesaila hasi zenuenean? Hitz egin iezaguzu pixka bat proiektuari buruz: nondik sortu zen, nola eboluzionatu zuen, zer harreman izan zuen konfinamendua izan zen egoera berri eta bitxi harekin.

Susana: Egia esan, ez zen proiektu gisa jai, terapia gisa baizik. Lehen konfinamenduak nahikoa blokeatu ninduen, eta ez nintzen lanean kontzentratzeko gauza, eta, beraz, zeregin txiki batzuk bilatu nituen, astia betetzea bestelako asmorik gabe entretenituko nindutenak. Nik lan asko egiten dut argazki eta aldizkari zaharrek, eta pentsatu nuen paperezko etxetxo bat egitea, konfinamenduaren oroigarri gisa, entzierroaren souvenir moduko bat. Baina lehenengoa egin nuen eta gustatu egin zitzaidan. Eta hurrengo egunean beste bat egin nuen. Eta horrela 76 arte. Familia ikustera joateko aukera izan nuen egunean gelditu egin nintzen.

A: Portadara eraman dugun lanean bezala, beste pieza askotan espazialtasuna lantzen duzu, bolumena sortuz paperaren tolesturen bidez, eguneroko elementuekin edo hainbat materialez baliatuta (harea, izotza, xaboia, etab.). Zer eginkizun du espazioaren dimentsioak zure lanean?

S: Askok gustatzen zait collageak teknika gisa dituen mugak zalantzan jartzea, noraino irits daitekeen eta beste material batzuekin nola erlazionatzen den ikustea, zenbat eta arraroagoak, iragankoragoak eta ustekabekoagoak izan, orduan eta hobeto. Paperak planoak uzten duen une hori gustatzen zait, beste zerbait bihurtu eta bolumenari, zatiketari, errepikapenari eta zoriari nola erantzuten dien ikusteko.

A: Collagea, berreskuratzeko eta birsignifikatzeko modu gisa. Collageetan, askotan, argazki zaharrak eta anonimoak erabiltzen dituzu. Zer lotura dago jatorrizko argazkien eta zure piezen artean?

S: Ia beti jatorrizko argazkiak collageetan erabiltzen ditut. Erabat liluratuta nago obsesiboki pilatzen dudana material mota honekin. Nire ustez, denbora paperean igarotzea erabakigarria da argazki bat edo bestea aukeratzeko, zenbat eta gehiago urratu, hautsi edo tolestu, orduan eta gehiago gustatzen baitzait. Ia beti erabiltzen ditut oso konektatuta sentitzen naizen emakumeen erretratuak, ezagutzen ez ditudan arren.

A: Erabiltzen dituzun erretratuak anonimoak dira? Album pertsonalen baten parte dira? Nola iristen dira zure eskuetara?

S: Anonimoak izaten dira eta ia beti emakumeak. Eta bigarren eskuko azoketan lortzen ditut (aurrez aurrekoak edo digitalak). Batzuetan jendeak ere, material horrekin lan egiten dudala dakienez, aurkitzen edo erosten dituen argazkiak oparitzen dizkit.

A: *Eta zure lana arkitekturarekin lotuz, zure pieza batzuek horma eraitsien edo hiri-hormen gainean hartu dituzte kaleak. Formatu handiago batean eta leku publikoetan lan egiteak nola eragiten du sortze-prozesuan? Zer interakzio bilatzen duzu bat-bateko publikoaren eta zure esku-hartzearen artean?*

S: *Espazio abandonatuak eta horma zaharrak ditut bereziki gustuko. Niretzat oso garrantzitsua da collagea jarriko dudan ingurua. Asko interesatzen zait nola pieza zahartzen doan hormarekin, nola desagertzen diren paper-zatiak, eta nola integratzen den gero eta gehiago espazioarekin. Bestalde, mural bat planteatzen dudanean, sortze-prozesuari dagokionez modu desberdinean lan egiten dut. Adibidez, argazki ez-anonimoak erabiltzea gustatzen zait, gainerako collageetan ez bezala, baizik eta jarriko dudan testuinguruarekin zerikusia dutenak. Eslovenian egin nuen muralean, adibidez, murala dagoen etxean bizi izan zen hiri horretako aktore baten argazkiak erabili nituen, eta Alfamén-en edo Transmutar Camiños-en bertako andreen argazkiak erabili ditut. Obra horiek ikusteko espazioarekin benetako lotura hori sortzea gustatzen zait. Egunerokotasunean horma-irudia ikusten ari diren pertsonak pixka bat eurenak direla sentitzea, bai eta sortzeko prozesuan sartuta egotea ere.*

A: *Nola harremantzen da collagea zure diseinatzailerako grafiko lanarekin?*

S: *Hasieran, collagearekin asmo artistikoagoarekin lan egiten hasi nintzenean, bi diziplinak oso berezita mantentzen saiatu nintzen. Niretzat, gauza bat diseinua zen, eta beste bat artea, eta saiatzen nintzen funtzionatzen, bizitza-, lanbide- eta sormen-espazio desberdinetan. Baina denborarekin konturatu nintzen ez direla konpartimentu estankoak, baizik eta komunikatuta daudela eta bakoitza besteaz elikatzen dela ezinbestean. Beraz, orain, funtsean, utzi egiten dut proiektuak nolabaiteko askatasunez ibil daitezen, asko pentsatu gabe gauza bat edo bestea egiten ari naizen, edo biak, edo bat ere ez. Zorionez, orain enkargatzen dizkidan proiektu askotan emaitza hibrido samarrak nahi dituzte, diseinua eta artea uztartzen dituztenak.*

A: *Orain ze proiektutan zaude murgilduta?*

S: *Bada, zorionez, askotan. Oraintxe bertan, argazki analogikoko jaialdi baten grafika diseinatzen ari naiz, non gainera, nire lanak ikusgai izango ditudan. Baita fotokazetari batentzat liburu bat diseinatzen ere. Parisko galeria baterako pieza batzuk sortzen, Huescarako erakusketa bat prestatzen eta Madrilen urte-amaieran egingo dudan beste bat sortzen. Baita Galiziarako horma-irudi bat sortzen ere, hango herri txiki bateko emakumeekin eskuz esku asmatua.*

A: *Amaitzeko, non ikus edo kontsulta dezakegu zure lana?*

S: *Nire webgunea eguneratu gabe daukat duela 3 urtetik, beraz, uste dut nire Instagrameko @descalza kontuan ikus daitekeela ondoen zertan ari naizen lanean.*

===

Erredakzioan itzulia.